



Asteazkenean lan istripuz zauritako garraiolari olaztiarra hil da

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 28/06/2024

Bestalde, langile bat larriki zauritu da Ziebornan, makina batek harrapatu eta bi hankak moztu dizkio.

44 urteko kamioilari bat, Olaztiko bizilaguna, hil egin da asteazken arratsaldean, N-I errepidean, Idiazabal parean (Gipuzkoa), zirkulazio-istripu larri bat izan ostean. Garraiolariak zauri oso larriak jasan zituen, eta hasieratik bere egoera kritikoa zen. Gaur jakinarazi dutenez ospitalean hil da.

Bestalde, langile bat larriki zauritu da Ziebornan, makina batek azpian arrapatuta. Haizea Wind enpresak azpikontrataturako 48 urteko langilea Superportuaren barruan ari zen beharrean. Galdaragintza-sailean zegoen, eta makina batek harrapatu eta bi hankak moztu dizkio. Langileek laguntza psikologikoa behar izan dute.

<https://eh.lahaine.org/astehazkenean-lan-istripuz-zauritako-garraiolari>